

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Kulturartekotasuna eta
euskara elkarrekin landuz**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Ale honetan zer?

Adinekoen zentro berria	3
Irisgarritasuna	4
Berdeguna.....	5
Kulturartekotasuna eta euskara	6

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Perdillegi eremuan tramitazioak aurrera doaz

Aurrera doaz, adinekoen zentro balioanitz berria eraikitzeko Perdillegiko eremuan egin beharreko tramitazioak. Iraileko plenoan, Azpeitiko Hiri-Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketaren behin behineko onarpena eman zitzaion Garmendialde 2. hirigintza eremuko 2.2. Perdillegi azpieremuari eta San Martin 2.3 JZ-ri. Ondorioz, Perdillegi eremuan adinekoen zentroa egin ahal izateko egin beharreko tramitazioan pauso garrantzitsua eman da. Bide horretan, eraikina egin ahal izateko Plan Orokorraren aldaketa puntuala onartu da iraileko plenoan eta urte bukaerarako behin betiko onarpena ematea aurreikusten du udalak.

Proiektu horren baitan, beste hainbat aurrerapauso ere eman dira. Hala, Perdillegiko goiko eraikinean

dauden eragileen egoitza aldaketa abian da; uztailan inauguratu zen Atzegiren eraikin berria Perez Arregi Plazako Telefonika zaharreko eraikin berrituko beheko solairuan. Eta, Juan Antxieta Musika Eskola lekuz aldatzeko obrak abian dira Soreasuko bigarren solairuan.

Hutsik dagoen Perretxikoa bezala ezagutzen den eraikina ere epe motzean botako da. Dagoeneko lehiaketa publikoa egin da eta laster hasiko dira eraiste lanak. Eraikina eraistean, behin-behinean eta eraikin berriaren obrak hasi bitartean, aparkalekua izango da eremu hori.




Irisgarritasuna hobetzeko neurriak

Azpeitia herritar guztientzat irisgarriagoa izateko helburuz, han-hemenka neurriak hartzen dihardu Azpeitiko Udalak. Azken aldian, ikastetxe inguruetan bi egokitzen edo obra egin ditu, herritar guztien segurtasuna eta joan-etorriak errazteko.

Alde batetik, Perdillegi kalean, Karmelo Etxegarai Ikastolaren aurreko errepidea gurutzatzeko espaloia egokitu du, eta zintarria kendu. Hala, gaur egun, oztoparik gabe igo daiteke espaloira.

Beste aldetik, berriz, Loiolako Inazio pasealekuko Azpeitiko Ikastola Ikasberri aurreko semaforoa irisgarriagoa eta seguruagoa egin du, beste botoi bat jarritik oinezkoenarentzat, bi aldeetan. Orain, seguruagoa eta errazagoa da haurrentzat eta gurpindun aulkian daudenentzat irisgarriagoa.

Bertako landare espezieen inguruko sentsibilizaziorako gunea egingo da



Madalena auzoa eraberritzen jarraitzen du udalak. Hala, baselizaren inguruko hainbat etxebizitza bloke eskuratu, eraitsi ziren. Orain, ermitaren atzealdeko maldako lur publikoa berreskuratzeko proiektua sustatu du.

Proiektua bi asmo elkartuz egin da; alde batetik, udalak eremu hori berreskuratzeko asmoa zuen, eta bestetik Urola Bizirik natur taldeak bertako landare espezieak landatu eta sentsibilizaziorako gune bat sortzeko ideia azaldu zion udalari. Hala, biak uztartuz egin da proiektua.

Baso egiturak sustatzeko paisaia proiektu holistikoa bat egingo da. Helburu nagusia udal jabetzakoak diren landa lurak bere onera ekarri, bertako baso landareak ugaltzeko eremu bat egituratu eta gizartearen sentsibilizazioa sustatzeko duen leku gisa antolatzea da.

Horretarako, lurren lehengoratzea azkartzeko bertako zuhaixken landaketak burutuko dira; Izarraitz KBE-ko amortiguazio eremuan bertako flora egitura berroneratuko da; auzo baratzeen kultur paisaia berreskuratzeko lanak burutuko dira; Hariztiaren segida indartzeko landaketak eta hauen hedapena sustatuko da; azalera iragazkarri eta ahalik eta bigunena sortuko da; bertako zuhaixken museo bizi eta bisitagarria egingo da; klima-aldaketa-erakunde eta balio naturalen babesarekiko gizarte-kontzientzia indartzea ahalbidetuko da eta baso natural eremuak birsortzeko landare mintegia indartuko da.

Euskara eta kulturartekotasuna uztartzeko egitasmoa jarri da abian



Euskara eta kulturartekotasuna lantzeko beharrak batu ditu hainbat eragile, ikastetxe eta udala egitasmo berri honetara. Helburua da herriko komunikazio hizkuntza euskara izaten jarraitzea, baina, aldi berean, euskara ez dakitenei ulermena erraztea eta haien parte hartzea sustatzea.

Udalerri euskaldunetan aldaketa demografiko handia izan da azken urteotan, eta horrek eragin zuzena izan du eskoletan: gero eta gehiago dira jatorri atzeritarreko gurasoek dituzten ikasleak, eta hezkuntza-komunitateak erronka berriari erantzun behar izan dio: euskararen erabilerari eustea, beti ere familia horiekiko komunikazioa bermatuz eta herrian dauden kulturen arteko harremanak eraikiz, haien parte-hartzea sustatuz. Hori horrela, Euskara eta kulturartekotasuna udalerri euskaldunetan ekimena abiatu da Azpeitian.

HARRERA BEROA EGITASMOARI, AZPEITIAN

Azpeitian, aurkeztu berri da egitasmoa. Bertan izan ziren, besteak beste, Nagore Alkorta Azpeitiko alkatea eta Leire Sarasua Hezkuntza zinegotzia, Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordea, Iraitz Lazkano UEMAKo jarduneko lehendakaria, Amelia Barquin eta Karmele Perez HUHEZIKo irakasleak, eta Azpeitiko eskoletako zuzendariak, gurasoekin eta herriko beste hainbat eragilerekin batera.

Lehenago, UEMAK herriko ikastetxeetako irakasleei eta herriko hainbat eragileri aurkeztu die ekimena, oinarriak eta ikasturtean zehar emango dituzten urratsak azaltzeko, eta ekimenak interes handia sortu du hezkuntza-komunitatean eta herriko hainbat elkartetan.

Gakoak

Sarasuak egitasmoan parte hartzen ari diren ikastetxe, eragile irakasle eta gurasoei eskerrak eman nahi izan dizkie bere hitz hartzean: "Egitasmo hau herri mailan zabaldu behar dugu, eta horretarako hezkuntza komunitatea zarete giltza. Beraz, aurrera batera egin beharra daukagu".

Lazkanok gogoratu zuen moduan, "oso garbi dugu Euskal Herritik kanpoko bizilagunak eta haien kulturak ere kontuan izan behar ditugula. Elkarrekin lan egin behar dugu euskararen alde. Euskara erdigunean jartzea da gure helburua, eginkizun guztiak euskaraz egitea eta euskaraz bizitzea. Baina euskaraz ez dakiten pertsonekin ere konpartitu nahi dugu helburu hau, haien bizipenak eta beharrak ere kontuan izanda".

Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, berriz, udalerrri euskaldunetan eta arnasguneetan euskararen inguruan ekimen eredugarriak sortzeak duen garrantzia aipatu zuen, "horietatik gero besteetara zabaldu ahal izateko".

Euskara eta kulturartekotasuna lantzeko egitasmo berria jarri berri dute Azpeitian; ikastetxeak, gurasoak eta erakunde publikoak elkartuta, sortu da proiektua

- Azpeitia euskaraz bizi den herria da, eta horrela izaten jarraitu nahi du. Ez dira asko horrelako arnasguneak, eta erabakigarriak dira euskararen iraupenerako
- Guraso batzuek ez dakite euskaraz, eta horien parte-hartzea bermatu nahi da. Haien seme-alaben integraziorako garrantzitsua da
- Euskaraz dakiten eta ez dakiten familien arteko harremanak sendotu nahi dira, elkar entzunda eta elkar ulertuta. Horretarako, espazio batzuk konpartitu behar dira
- Atzeritar jatorriko familia batzuk ere kezkatuta daude beren hizkuntzekin. Eskolek eta herriak hizkuntza horiekin ere adeitasuna erakutsi nahi dugu, elkarrekikotasuna oinarri
- Maiatzean hasi ziren 35 lagunekoko talde eragile bat lanean. Bertan, herriko ikastetxeetako irakasle eta gurasoek osatzen dute, euskaldunak eta euskaraz ez dakitenak. Horrez gain, hainbat eragilek eta Udalak ere parte hartzen dute
- Bide berriak bilatzen dira. Probatzen, ikasten eta hobetzen joateko
- Konplizitatea bilatzen da, jarrera adeitsuak eta eraikitzaileak erabiliz
- Ikastetxeetan eta beste esparru batzuetan, tresna eta egiteko modu berriak abian jarriko dira ikasturte berri honetan: egoera guztietan euskaraz egiteko aukera, aldibereko itzulpenak, talde dinamikak, testuak eta mezuak euskaratik norbere hizkuntzara itzultzeko baliabideak...



Etxebizitzen alokairurako dirulagutzak

Eskaerak aurkezteko azken eguna: Urriak 15



Sustapen ekonomikorako laguntzak

400.000€ sektore guztiak laguntzeko
Eskaerak aurkezteko azken eguna: Urriak 15